

garabide
erebepiq

20

Memoria

14

Aurkibidea

Garabidez	4
Sarrera	6
Erakunde politikoetako ordezkariekin harremanak	7
Udal Bira	8
Bidaide programa	10
Tokian tokiko proiektuak	14
Kolonbia	14
Ekuador	15
Kurdistan	15
Txile	16
Mexiko	17
Zabalkundea	18
Balantze ekonomikoa	20
Ondorioak	21

Garabidez

Lankidetza klasikoan gailendu izan den "Zenbat diru dugu emateko?" galderari buelta pare bat eman eta "Zein esperientzia dugu elkartrukatzeko?" galdegiten hasi ginen orain bederatzi urte Garabiden lankidetzaren bideari ekin genionean. Jabetu ginen itaun berri horrek lagunduak-laguntzaileak dinamika aldatzen duela eta bi poloak jakintza eta bizipenen hartzaile eta emaile bilakatzen dituela, berdinen arteko lankidetza harremana sortuz.

Gure herriak munduarekin partekatzeke zein esperientzia edo jardunbide dituen pentsatzen hasiz, berehala dator burura euskararen biziberritze esperientzia. Ekimen zibiletik sortutako azpiegitura sarea oinarri izan duen hizkuntza biziberritze esperientzia moduan ez du pareko gehiegi eta jakintza hori altxorra da munduko hizkuntzen galera prozesua inoiz baino biziago den honetan. Urtero munduan hainbat hizkuntza galtzen dira, baina azken urteetan desagertzeko prozesua azkartzen ari da; mende erdia baino lehen munduko hizkuntzen erdiak hilko direla aurreikusten da.

Euskararen komunitateak azken 50 urteotan hizkuntza berreskurapenean egin duen ibilbidea ez da irrelebantea eta 9 urte hauetako ibilbideak erakutsi digu beste hizkuntza minorizatu batzuei oso pertinente zaiela euskararen berreskurapen esperientzia. Horren erakusgarri dira urtero eta munduko hiztun komunitate minorizatu desberdinetatik (kurduak, maputxeak, kitxuak, aimarak, nasak, emberak, kaqchikelak, nahuatlak, tamazighak, shuarrak...) jasotzen ditugun aholkularitza eta formazio eskaerak edo jada bi aldiz antolatatu dugun Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aritu Tituluan parte hartutako ikasleek beraien jatorrizko herrialdeetan hemen ikusi eta ikasitakoaren ildotik garatutako proiektuak.

Hizkuntza gutxituak dituzten Hegoaldeko herri indigenekin euskararen berreskurapen esperientzia hori partekatzea da gure helburua, beti ere hizkuntzaren eta kulturaren biziberritzeak jasangarritasunarekin, giza eskubideen defentsarekin eta ekitatearekin duen nahitaezko ikuspegitik. Partekatzetik, euren ekimenak ezagutu eta modu eragilean euskalgintzaren esperientzia nazioartean zabaldu nahi dugu. Izan ere, zenbait herri indigena, hainbat arlotan, guk orain 50 urte bizi izan genuen egoeran daude. Ezagun eta gertuko egiten zaizkigu haien kontakizunak eta horrek konplizitate eta enpatia handia sortzen du. Dituzten kezka eta arazoak guk, geure baitan, bizi ditugun edo bizi izan ditugunen berdinak edo oso antzekoak dira. Euskalgintza modernoak azken 40-50 urtetan egindako lana handia da oso, aurrerapauso handiak eman ditu eta erreferente bihurtzen ari da beste herri askorentzako, nahiz eta euskarak ere baduen oraindik ere besteengandik zer ikasia. Bestalde, euskararen berreskuratze prozesutik ateratako ondorio teorikoez gain, euskal komunitateak badu beste hizkuntza gutxituetako komunitateekin partekatzeke esperientzia gehiago ere: sortu diren ekimen ezberdinetatik, eskarmentu eta esperientzia handiko pertsonak osatu dira eta, pertsona horiek, euren hizkuntza berreskuratu nahi duten kolektiboetarako ezinbesteko laguntza dira.

Lankidetza arloan irekitzen ari garen lerro berria horretan emandako pausoei eta jasotako fruituei gure hasierako helburuak berretsi dizkigute:

- 1) Garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komunitate minorizatuarekin lankidetza bideratzea, euskara eta euskal kulturaren garapen esperientzien trukean oinarrituta.
- 2) Norabide horretan, munduko hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuarekin eragileekin lankidetza proiektuak garatzea. Lankidetza proiektu horiek hizkuntzaren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alor desberdinetan gauzatzea, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarriz.

3) Euskararen eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoaldeko hizkuntza komunitate minorizatuekiko lankidetzarako beren esperientzia eskain dezaten sustatzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz .

4) Hori guztia beti ere kontuan izanik hizkuntzaren eta kulturaren biziberritze prozesua nahitaezko oinarria dela giza eskubideen, jasangarritasunaren eta ekitatearen aldeko eraldaketa mugimenduetan.

Formazio, aholkularitza eta tutorizazio proiektuak eskainiz, esperientzien truke-programak antolatuz, eta euskalgintzaren esperientzia ikertu, didaktifikatu eta zabalduz, bestelako lankidetzaren eredu baten alde eta hizkuntzen desagertze arazoaren aurka jarraitzen dugu lanean Garabiden.

Sarrera

2014a hitzarmenen urtea izan da. Lanean hamarkada betetzear, hizkuntza lankidetzaren -eta erakundearen jarduna bera- kontsolidatu eta sendotzeko udal eta erakunde sarea eratzea izan da urteko zeharkako helburua.

2014a hitzarmenen eta Garabideko talde teknikoaren indartzearen urtea izan da. Lanean hamarkada betetzear, hizkuntza lankidetzaren -eta erakundearen jarduna bera- kontsolidatu eta sendotzeko udal eta erakunde sarea eratzea izan da urteko zeharkako helburua, tokian tokiko proiektuak abiatu, martxan daudenei jarraipena eman eta etxera begirako zabalkundearen kontzientziazioaren ohiko jardunarekin batera. Aditu Tituluaren bigarren edizioako biharamunak eta erakundeekiko harremanek markatutako irteera-puntuan, 2014ari talde eta gogo eraberrituarekin ekin dio Garabidek.

Gure filosofiarekiko sentsibilitatea eduki lezaketen udaletxe eta erakundeekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatzeko bideari ekin diogu urte hasieran. 2013an UEMArekin sinatu genuen hitzarmenaren haritik, zeinak mankomunitateko kideei gomendatzen zien lankidetzaren funtsaren %25 jatorrizko hizkuntzen biziberritze egitasmoetara bideratzea, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat udaletxetan izan gara Garabidek hasieratik urratu nahi izan duen kooperazio ildo berriaren bidea indartu asmoz, eta gobernuko eta erakunde publikoetako ordezkariekin ere izan dugu harremana. Lankidetzaren klasikoaren markoan egituratutako ohiko diru-laguntza deialdien inertzia errektiboek lan baliabideak proiektuetara baino proiektuen buroraziara bideratzea ekartzen duela aspaldi detektatu zuen Garabidek eta, gure indar guztiak hizkuntza lankidetzara bideratzeko helburuarekin, hitzarmen bidezko elkarlan zuzenaren formula bultzatzen saiatu gara. Oparoa izan da erantzuna; hamaika udaletxek bat egin dute gure jardunarekin eta hitzarmen proposamen batera ere hurbildu gara Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin.

Oinarriak egonkortzeko jardunaz gain, hizkuntza lankidetzako hainbat proiektu garatu ditugu beste urte batez, eta baita Euskal Herrira begirako zabalkunde eta kontzientziazio ekintzak burutu ere. Urteetako harremana eta hainbat proiektutako eskarmentua dugun herrialdetan izan gara ereindako haziei jarraipena ematen (Kolonbia, Ekuador, Mexiko); harremana hoztua zen herrialdeekin elkarlanari heldu diogu berriz (Txile); eta herrialde berrien lankidetzaren eskaerei ere erantzun diegu (Kurdistan). Baina Euskal Herrian bertan ere ibili gara Garabideren mezua sozializatzen.

Elkartearen jarduna sendotu eta erronka berriei aurre egiteko, lantaldea ere indartu dugu Garabiden. Langile errotazio handia izan dugu sorreratik eta egonkortze aldera, hiru pertsonako lantalde teknikoaren aldeko apustua egin dugu 2014an. Epe ertain eta luzera begirako erabaki estrategiko horri esker martxan diren proiektuei erantzun jarraituagoa eman ahal izango diegu eta baita aurkezten zaizkigun erronka berriei erantzun eraginkorragoa eman ere.

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Tituluaren hirugarren edizioari dagokionez, forma eta eduki aldaketa batzuk egitea erabaki da aurreko edizioetatik eratorritako ondorioetatik: iraupen laburragoa, arlokako espezializazioa eta ikasle gehiagoren parte-hartzea izango dira 2015eko graduondokoaren berritasunak.

Erakunde publikoetako ordezkariekin harremanak

Kooperazio Linguistikorako Estrategia zirriborroa aurkeztu diogu gobernuari. Txosten hori erreferentziatzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak lehen aldiz hizkuntza lankidetzaren ildo aintzat hartu du urtero aurkezten duen Euskara Planean.

Euskal Herriko kooperazioaren baitan kooperazio edo lankidetzak linguistikoaren ildo sortzeko beharrezko aspaldi jabetu ginen Garabiden eta ildo berri hori babestu eta ezartzeko alderdi politikoetako eta erakunde publikoetako ordezkariekin batu gara 2014an. Alderdi desberdinetako ordezkariekin, euskara alorreko arduradunekin, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako (HPS), Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (GLEA) eta Eusko Legebiltzarreko ordezkari politiko desberdinekin bilerak egin ditugu eta Kooperazio Linguistikorako Estrategia zirriborroa, Euskal Herriko hizkuntza lankidetzak taxuz abiarazteko estrategia marrazteko oinarriak lantzen dituen, aurkeztu diogu gobernuari. Dokumentu horrek lehen lau urteetarako lehentasunezko honako lan-ildoak proposatzen ditu:

- 1) Administrazioen arteko hitzarmenak sinatu eta kooperazio zuzena egitea.
- 2) Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategietan erreferentziatzeko graduondoa finkatzea.
- 3) Formazio mailako beste jardunbideetan aurreratzea.
- 4) Aholkularitza mailan lehentasunezko lau herrialdeetan (Ekuador, Kolonbia, Mexiko eta Guatemala) ildo bana finkatzea, erakunde, programa edo proiektuak aukeratuta.
- 5) Euskal gizartean sentiberatasuna lantzea hizkuntza-aniztasunaren balioa erakutsiz, hizkuntza-lankidetzaren beharra ikustaraziz eta euskararen biziberritzean, bereziki irakaskuntza elebieleanitzaren esparruan, metatutako esperientziaren oihartzun-balio biderkatzailea aldarrikatuz. Baita kooperazioak izan beharko lukeen noranzko bietako balioaz hausnartzea ere.

Txosten hori erreferentziatzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak lehen aldiz hizkuntza lankidetzaren ildo aintzat hartu du urtero aurkezten duen Euskara Planean. Garabide, beraz, eragile garrantzitsua izan da Jaurlaritzak lehenengoz hizkuntza lankidetzak bere agendan sartzeko.

Harreman eta proposamen horien emaitza izan da GLEA, HPS eta Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekin hitzarmen proposamen batera hurbildu garela eta Garabide, euskal lankidetzaren barruan, ildo berritzaile baten erreferente izateko bidean dela.

Udal bira

2013an UEMArekin sinatu genuen hitzarmenaren ildotik, 11 udaletxerekin lotu dugu lankidetzaren hitzarmena. Babes instituzional horrek arnasa eman digu Bidaide programaren baitako hainbat proiektu aktibatu eta martxan zirenei jarraipena emateko.

2013ko azaroan Garabidek eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) sinatu zuten hitzarmena jauzi kualitatibo garrantzitsua izan zen nazioarteko garapenerako lankidetzaren hizkuntza irizpidea txertatzeko aldera, UEMAk bere baitan dituen 72 udalei lankidetzaren funtsaren %25 jatorrizko hizkuntzen biziberritze egitasmoetara bideratzeko proposamena luzatu baitzuen.

Hizkuntza gutxiak dituzten komunitateekin lankidetzaren sustatzeko hitzarmena sinatu dute Garabidek eta UEMAk

2013(e)ko Azaroak 12 Iruzkinak ezgaituta




Maren Belastegik UEMAk lehendakaria eta Andoni Barreña Garabideko presidentea sinatu dute bi erakundeen arteko hitzarmena. Nazioarteko garapen-lankidetzaren hizkuntza irizpideak dagokion lekua izan dezan lortu nahi da horrela. Beti ere, garapen iraunkorra abiapuntutzat hartuta.

Bultzada hori aprobetxatuz, hizkuntza lankidetzaren proiektuak babesteko hitzarmenak lortzeko udal birari ekin genion urte hasieran Garabiden. Abadiño, Andoain, Aretxabaleta, Arrasate, Aulesti, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Bermeo, Berriatua, Durango, Errenteria, Hernani, Markina, Oiartzun, Ondarroa, Oñati, Otxandio, Tolosa, Urretxu, Usurbil, Zaldibar, Zarautz eta Zumaiako Euskara zein Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi eta teknikariek izan gara eta Andoain, Azkoitia, Berriatua, Durango, Oiartzun, Ondarroa, Orio, Otxandio, Tolosa, Usurbil eta Zarautzekin sinatu da hitzarmena.

Babes instituzional horrek arnasa eman digu Bidaide programaren baitako hainbat proiektu aktibatu eta martxan zirenei jarraipena emateko. Hizkuntza biziberritze prozesuek esku-hartze puntualak baino programa jarraituak eskatzen dituzte eta helburu horrekin, hain zuzen ere, planteatu diegu udaletxeei programa hori babestea hitzarmenaren formularen bitartez. Ohiko diru-laguntza deialdietan urte beterako proiektuak aurkezten dira eta erakundeon baliabideen zati garrantzitsu bat burokraziara bideratu behar izaten da lankidetzara beharrean. Hizkuntza lankidetzaren proiektuek epe ertain edo luzeko konpromisoak eskatzen dituzte, eta proiektuak aktibatzeke bakarrik ez horiei jarraipena emateko baliabideak eta babes instituzionala bermatu nahi izan ditugu hitzarmenaren formularen bidez Bidaide programa finantzatzeko. Hizkuntza plangintza integral batetik abiatzen den lau urteko lankidetzaren programa horrek, munduko hiztun komunitate gutxiuetako eragileak eta euskalgintzako eragileak elkarlanera aktibatzea du helburu, Garabide bitartekari izanik.

Lankidetzarako hitzarmena sinatu dute Berriatuako Udalak eta Garabidek



Imanol Mugartegi alkatea eta Txema Abarrategi Garabideko koordinatzaileak irudikatu dute bi erakundeen arteko hitzarmena. Hitzarmen horien asmoa da munduko hizkuntza gutxiuen biziberritze proiektuak indartzen laguntzeko jarduerak bultzatzea. Berriatuarekin, 7 dira (Zarautz, Ondarroa, Usurbil, Orio, Oiartzun, Otxandio eta Berriatua) Garabiderek hizkuntza

lankidetzaren hitzarmena sinatu duten [UEMAko udalerrak](#).



Mikel Mendizabal, Garabideko Zuzendaritza Batzordeko kidea, Oiartzungo udaletxean Oihan Tello alkatearekin.



Txema Abarategi, Garabideko koordinatzaile orokorra, Andoaingo udaletxean Ana Carrere alkatearekin.



Andoni Barreña, Garabideko lehendakaria, Usurbilgo udaletxean Mertxe Aizpurua alkatearekin.

Bidaide Programa

Herri bidaidetza jatorrizko hiztun komunitateak garatzeko lankidetzeta programa integratua da, hizkuntza plangintza integral batetik abiatzen dena.



Euskal Herriaren esperientziatik hizkuntza biziberritzeko **estrategiak garatzeko bidaide** izatearen garapen praktikoa da.

Munduko **hiztun komunitateetako** eragileak eta **euskalgintzako eragileak elkarlanera aktibatzen** ditu.

Bidaidetza kontzeptuan oinarritutako sistema da, **herrien esperientziak partekatzean** oinarritutako lankidetzeta sistema berria.

Sistema partekatua da, **ez asistentzialista**, ez du dependentzia jarrera sortzen, ez da proiektuak ordaintzean oinarritzen.

Sistema integratua da, hainbat jardun, eragile eta ekintza uztartzen dituelako: trukeak, formazio jarraituak, bidelaguntza jarduerak eta aholkularitza.

Partaide izan ohi ditugun euskal erakundeak

- UEU
- EHU munduko hizkuntza ondarearen UNESCO katedra
- HUHEZI fakultatea
- Goiena komunikazio taldea
- Berria
- Argia
- Euskararen kontseilua
- Euskaltzaleen Elkarten Topegunea eta bertako hainbat euskara elkarte
- UZEI
- UEMA
- Soziolinguistika Klusterra
- EMUN
- Elhuyar
- AEK
- Ikastolen Elkarte
- Bai & by fundazioa



Munduko Hizkuntza Ondarearen
UNESCO Katedra
Cátedra UNESCO
de Patrimonio Lingüístico Mundial
UNESCO Chair
on World Language Heritage



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

berria


argia



Programaren aurrekariak

Orain arte jorratutako bideak:

- Euskararen esperientziaren sistematizazioa munduko herriei begira: 4 liburuxka eta 4 bideoko bilduma.
- Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak Aditu Titulua gradu-ondoko ikasketa arautua, HUHEZI fakultatearekin elkarlanean, jatorrizko herrietako eragileak hiztun komunitatearekin estrategia mailan formatzeko. Bi edizio 2011n eta 2013an.
- Truke programak, jatorrizko hiztun komunitateetako eragileak euskalgintzako eragileekin eta errealitatearekin kontaktuan jarritz, hilabeteko programa intensiboak. Bost edizio: 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2012.
- Boliviako gobernuari aholkularitza, hizkuntza biziberritzeko estrategietan, hizkuntzako hizkuntza-ereduetan eta unibertsitate indigenaren sorrera prozesuan.
- Komunikatzaileak formatzeko proiektua Ekuadorren, kichwerazko telebista sortzeko pausuak prestatzen.
- Kolonbiako Nasa hiztun komunitatean haur hezkuntza jatorrizko hizkuntzan lantzeko formazio proiektua.
- Kaqchiquel hizkuntza hezkuntza arautuan lantzeko hezkuntza proiektuen bidaidetza Guatemalan.
- Maputxe (Txilen), aimara eta quechua (Bolivian), kaqchiquel (Guatemalan), maia yukateko eta nahuatl (Mexikon) eta kichwa (Ekuadorren) hiztun komunitateekin proiektuen inguruko iritzi trukea eta aholkularitza.




Programaren ezaugarriak


Epeak

- Programak lau urteko epea du, 2013tik 2017ra.
- Aurretik, 2007tik, programa hau posible izateko, formazio, harreman eta eta indar bilketa ugari egin da Euskal Herriko eta Hegoaldeko erakundeen artean.

Eragileak



Esparruak



Ekintzak

- Formazio espezializatua hizkuntzaren garapenerako arlo zehatzetan.
- Esperientzia-trukeak erakundeetako gidari, langile eta militanteekin.
- Estrategia mailako aholkularitza.
- Euskalgintzako erakundeen eta jatorrizko herrietako erakundeen arteko bisita teknikoak.
- Hizkuntza biziberritzeko proiektu zehatzen sorkuntza eta jarraipena.

Tokian tokiko proiektuak

2014an hizkuntza lankidetzaz proiektuak garatu ditugu Kolonbia, Ekuador, Kurdistan, Txile eta Mexikon. Zuzenean Garabideren bitartekaritzarekin edo beste erakunde eta pertsona batzuek Garabideren harremanez baliatuz, era presentzial eta birtualean jardun dugu herri horietako hiztun komunitate minorizatuekin.

KOLONBIA

Jon Sarasua 2014ko apirilaren 28tik maiatzaren 10era bitartean Kolonbiako Cauca eskualdean izan da 40 laguneko nasa hizkuntzaren promotore taldeari "Sociología y ecología lingüística: visión estratégica sobre la revitalización de las lenguas originarias" ikastaroa eskaintzen. Çxhab Wala Kiwe-ACIN (Asociación Cabildos Indígenas del Norte) erakundearekin burutu dugu elkarlana eta "Luuçx Le'çxkwe" haur hezkuntza nasa yuwez garatzeko esperientzia pilotuaren baitan kokatu da bere egotaldia. Nasa Yuwerazko lehen eskola pilotu horietara egindako bisitaren ildotik, euskal hezkuntzaren esperientziaren kontakizuna egiteko aukera izan du eta eskola esperientzial hori indartzeko hemengo ikasleen praktikak 2015ean bertara bideratzen saiatzeko konpromisoa ere hartu da.



Andoni Barreña Garabideko lehendakariak Kolonbiako Cauca unibertsitatean egin du egonaldia 2014ko abuztua eta Abendua bitartean. Unibertsitate bereko Antropologia Sailak eta *Grupo de Estudios Lingüísticos, Pedagógicos y Socioculturales del Suroccidente Colombiano* ikerketa taldeak gonbidaturik, eta irakasle den Salamankako Unibertsitateak baimendurik, nasa yuwe sustatzaileekin lan saioak egiteko aprobetxatu du egonaldia. CRIC (Consejo Regional Indígena del Cauca) erakundeko UAIIN (Universidad Autónoma Intercultural Indígena) unibertsitate indigenak, Cauca unibertsitateak eta PROEIB-Andes unibertsitate erakundeak antolatutako *Encuentro Internacional sobre revitalización de Lenguas Indígenas* jardunaldietan ere parte hartu ahal izan du eta bertan azken urteetan ereindako hainbat prozesuren egoeraren berri izan du.



Rosi Oleaga eta Rosa Elizburu Durangoko Ibaizabal Ikastolako irakasleak ere Kolonbian izan dira abuztuaren 28a eta irailaren 12a bitartean. Jon Sarasua eta Andoni Barreñak bisitatutako Luuçx Le'çxkwe nasa yuwerazko lehen eskola sarean aritu dira lanean eskolaren antolaketa eta planifikazio pedagogikoa, irakurketa eta idazketa prozesua, hizkuntzaren lanketarako estrategia eta materialen erabilera eta gurasoen inplikazioa jorratuz.



EKUADOR

Julen Arexolaleiba Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakasle eta soziolinguista Ekuadorren izan da 2014ko ekainaren 21etik uztailaren 1era. Riobamba hiriko *Universidad Nacional de Chimborazotik* jarri ziren Garabiderekin harremanetan "Retos y desafíos de la interculturalidad en la educación" izeneko lehen Nazioarteko kongresuan parte hartzeko eskatuz eta gure zubi izaerari eta esperientzien elkartrukean oinarrituriko gure lankidetzazko filosofiari jarraiki, gaian aditu izan zitekeen norbaitekin jarri ginen harremanetan. Horrela aurkeztu du Julen Arexolaleibak "Reflexiones desde la experiencia del euskera en el ámbito educativo" hitzaldia aipaturiko kongresuan. Bide batez, bidaiari baliatu du Garabidek Ekuadorren lagun dituen erakundeekin harremana sendotu eta kontaktuen jarraipena egiteko.



KURDISTAN

Kobani (Siria) inguruko errefuxiatuak dauden Turkiako errefuxiatu kanpalekutan izan da Jon Sarasua 2014ko abenduaren 17tik 22ra. Jatorri kurduko kataluniar bat Garabiderekin harremanetan jarri zen erakunde sozial eta boluntario kurduak antolaturiko errefuxiatuen kanpalekuotan kurduerazko hezkuntza bideratzeko aholku eske. Estambulen dugun kontaktuaz baliatuz, kurdueraren egoera ezagutu eta elkarlan potentzialetarako harremanak egin eta erakundeak ezagutu ahal izan ditu Sarasuak.



TXILE

Maputxeak beraien mapudungun hizkuntza ofizializatu nahian dabilta Wallmapu eskualdean. Bi udalerritan -Galvarino eta Padre las Casas- lortu dute jada eta hizkuntzaren estatus ofiziala eskualde osora hedatzeko lanetan dabil ofizializazioaren aldeko mahaia. Mahaiko kideetako bat Garabiderekin harremanetan jarri zen ofizializazioa lantzeko aholkularitza eske eta, eskaera horri erantzunez, Andoni Barreña urriaren 21etik 30era izan da bertan eta Txema Abarrategi abenduaren 1etik 12ra.

Barreñak egonaldian "V Congreso Internacional de Lenguas y Literaturas Indoamericanas" eta "XVI Jornadas de Lengua y Literatura Mapuche" biltzarrean parte hartu du "Estrategias para la revitalización de la lengua: la experiencia vasca" izeneko hitzaldiaz. Horretaz gain, Finlandiako Tampere Unibertsitateko Jukka Havu irakasleak emaniko "Planificación y revitalización lingüísticas" izeneko ikastaroan egon da eta "Inarumegepyem Mapuche Zugun Wallmapu Mew - Academia de la Lengua Mapuche" herri erakundearekin harremanak sortu ditu.



Abarrategik "Jornadas por la oficialización del mapudungun" mintegian parte hartu du eta euskararen esperientziaz, hezkuntzaz bereziki, aritu da. Bi astez luzatu den egonaldia baliatu du eskualdeko hizkuntza-eragileekin eta esperientzia desberdinetako agenteekin iritziak trukatu eta hizkuntza egoeraren diagnostikoa osatu ahal izateko.


Biek ere egonaldian hizkuntzaren egoera eta berreskurapenaren alde ari diren pertsona eta erakundeak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute eta aukera bikaina izan da proiektuetarako eragileak identifikatzeko.



MEXIKO

Ander Bolibar Garabideko kidea Puebla estatuko Cuetzalan herrian izan da 2014ko abenduan bi astez Tosepan kooperatiban. Harreman luzea dugu Tosepanekin; aurrez hezkuntza arloan, murgiltze ereduan, metodologian eta materialgintzan izan dugu elkarlana, baina oraingoan Tosepan irratan nahuatl hizkuntza indartzeko eta teknologia berrien bitartez bertako hizkuntza nagusitzeko lanetan aritu da Bolibar.


Hainbat ikastaro eman ditu hizkuntza gutxituak teknologia berriez nola baliatu daitezkeen lantzeko: Nahuatl irrati sarea eratu, nahuatl hiztegia digitalizatu, euskal hedabideen esperientzia partekatu eta kooperatibaren komunikazio plana IKTetara moldatu dute, besteak beste.



Zabalkundea

Garabidek sorreratik lan egin du ez bakarrik hegoaldeko hizkuntza gutxituei begira, baita euskalgintzaren esperientzia ikertu, didaktifikatu eta hedatzearen alde ere. Euskarak bide garrantzitsua egin du berreskurapenari dagokionez azken mende erdian baina hizkuntza minorizatu bezala etengabe aritu behar du normalizaziorantz lanean eta Garabiden ez dugu ahazten barrura begirako lan hori.

Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatearekin batera antolatzen dugun Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak Aditu Tituluaren lehen edizioan parte hartu zuten ikasleen testigantzak batzen dituen dokumentala ekoiztu dugu 2014an. Bertan, lehen aldiz, munduko 7 hizkuntza komunitatetako 14 pertsona ageri dira bakoitza bere hizkuntzaren egoeraz mintzatzen, ametsak sortzen eta erronkak azaltzen, eta euskal esperientzia zertan den inspirazio ere jorratzen dute. Aurrestreinaldia egin genuen irailean Biarritzen Mintzalasai jardunaldien baitan eta Kanaldudekoek erreportajea ere egin ziguten.



"Beltzean mintzo" dokumentalaren kartela



Ander Bolibar eta Maddi Iñarra Garabideko kideak dokumentalaren aurrestreinaldian Biarritzen.

Bordeleko Euskal Etxetik ere jaso genuen gonbitea Euskararen Nazioarteko Egunaren baitan gure lehen liburuxkako dokumentala ("Euskararen berreskuratzea. Hizkuntzak biziberritzeko gako batzuk") proiektatzeko eta han izan gara abenduaren 3an euskal esperientzia jasotzen duen gure liburu eta dokumental bildumako lehen alea euskarri hartuta hizkuntza lankidetzaz, euskararen berreskurapenaz eta, bide batez, Garabideren jardunaz solasean. Aukera bikaina izan da Bordeleko unibertsitatean euskara irakasten eta ikasten ari diren euskaltzaleekin harremanak egin eta gure sarea sendotzen jarraitzeko.

Presentzialki bakarrik ez, birtualki ere aritu gara lanean herrialde desberdinetan hitzaldiak emanaz. Jon Sarasua eta Andoni Barreña Garabideko kideak urrutiko hitzaldi bana eskaini dute irailean PROEIB Andes (Programa de Formación en Educación Intercultural Bilingüe para los Países Andinos) programaren baitan. Ikastaroa Boliviako Cochabamban kokatzen den arren, bi irakasleek hitzaldia birtualki eskaini dute PROEIB Andes-ek hala eskatuta. Programa horren helburua kultura arteko hezkuntza elebiduna sustatzea da Andeetako herrialdeetan. Kurtsoa Cochabambako Mayor de San Simón unibertsitatean izan arren, Kolonbia, Txile, Ekuador, Peru, Argentina eta Bolivia herrialdeen elkarlanaren fruitua da proiektua.



Sarasuaren interbentzioak "La decisión de ser pueblo: bases de la revitalización lingüística en el País Vasco" izenburua izan du, eta Barreñak eskaini zuenak "Sobre la construcción de la escuela vasca en el marco de la revitalización de la lengua propia".



“.eus” domeinuaren aitzindarien artean kokatu, Soziolinguistika Klusterreko Belen Urangaren “Garapenerako lankidetzaren proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena” liburuaren argitalpenean kolaboratu edo EHUko Uda Ikastaroetan hizkuntza lankidetzaren inguruan Garabideko kideak hizlari gisa aritu izana Hegoaldera begira garatzen ditugun proiektuekin batera egunerokotasunean egiten ditugun lanen beste adibide batzuk dira.

Balantze ekonomikoa

SARRERAK

80 005€

Erakunde publikoak	78 005€	%97,5
Erakunde pribatuak	2000€	%2,5

GASTUAK

79 538,5€

Bidaidetza intentsiboak	Nasa yuwe	29 000€	%36,46
Bidaidetza intentsiboak	Kitxua	11 005€	%13,84
Bidaidetza intentsiboak	Nahuatl	17 100€	%21,50
Bidaidetza ertainak	Mapudungun	2650€	%3,33
Bidaidetza ertainak	Kurduera	1125€	%1,41
	Zabalkundea	5417€	%6,81
	Koordinazioa	8125,5€	%10,22
	Administrazioa	5116€	%6,43

Ondorioak

Munduan oso erakunde gutxi ari dira hizkuntza berreskurapenerako aholkularitza eskaintzen baina eskaria oso handia da. Hizkuntza galtzeko arriskuan duten hiztun komunitate askok ez dakite zer egin tendentzia horri buelta emateko eta erlojuaren aurka ari dira hizkuntza babesteko borrokan.

2014ko elkarlan esperientzietatik eta jasotako laguntza eskaeretatik beste behin baieztatu dugu hizkuntza lankidetzaren egin beharreko zerbaite dela, bai beharrezko eta baita ere orain arte egindakoak erakutsi digulako baliabide gutxirekin emaitza handiak lortzen dituen lankidetzaren mota bat dela.

Aditu Tituluaren parte hartu duten ikasleen indar biderkatzailea frogatua geratu da bakoitzak bere herrialdean graduondokoaren haritik gauzatu dituen ekimenetan eta herrialde askotan hizkuntzaren alorrean lehen aldiz aurrera eraman diren hainbat proiektu bertan erantutakoak dira. Ekuadorren, adibidez, lehenengoz ari da Gobernuak Hizkuntza Legea idazten eta ekimen horren bultzatzaile nagusia Aditu Tituluaren lehen edizioan parte hartutako Sacha Rosero hizkuntza ekintzailea izan da.

Bidaide programako eta orokorrean gure lan filosofiako oinarri den esperientzien elkartruke formulak ere gure hasierako intuizioa baieztatzen jarraitzen du: jakintza da lankidetzaren arloan elkarbanatu dezakegun input eraginkorrena. Proiektuak garatzen ari garen herrialde guztietan hizkuntza berreskurapenaren bidea nola egin da galdera eta bederatzi urte hauetako esperientziak erakutsi digu gure erantzuna gertuko eta pertinente zaiela.

Bide onetik goazela dioskuten adierazleekin, partaide ditugun erakunde sarea eta finantza iturriak sendotzen jarraitzea dugu helburu 2015ean hizkuntza berreskurapen prozesuak konpartitzen ditugun herrialdeekin bidea egiten jarraitu ahal izateko.

-Garabide Kultur Elkarte-

